

ZER


BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

126n. Zenbakia

Urtarrilla
1989




BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE




**ORBEGOZO'tar JOSE AGUSTIN AITA
(EUSKERAZAINTZA'KOA)**

**ERROMA'N, MUNDU GUZTIKO
PASIOAREN BURU**

MENDIAK



IRU-MUGARRIETA



IKUSPEGIA

Zein mendigoizalek ez daki, Aralar mendidi luzengea da, bai zabalez be, baiña askotaz luzez, Gipuzkoa'ko Zaldibia'n edo Amezketan asita Naparra'ko Sakona, Uarte-Arakil, Etxarri-Aranaz ta abar'erarte, Euzkadi'ko biotz-biotzean, erdi-erdian aurkitzen dala eta, orixegaitik geien bat, beren edozein goi-gaillurretik gure lurralde maitagarri geiena ikusten dala?

Ondo gogoratzen naz, orain berrogei ta bosten bat urte izango dira mendidi orretara lenengoz igon nebala. Igande arratsalde beranduan eldu nintzan Uarte-Arakil'era eta, naita zuzenean urte neban erri baketsu ortatik, gau-nabarrean eldu nintzan Mikel Deunaren ostatura eta, gau-aro izerratua ikusirik eta bertako apaiz jator Arbe (orretara uste dot zala beren abizena) lagun nebala urten ostatu ortatik eta igon gendun Altxueta (1.343 neurkin) gaillurrera.

Gabeko amaikak ziran eta, ezin geinkean ikuskizun bikaiñagorik ikusi: Iruña ta Gasteiz geure aldamenen oso argitsu eta, Bilbo ta Donosti'n argi dizdiriak. Benetan zoragarria.

MENDIRIK MENDI

Gaba ostatu orretan igaro ondoren, goizean-goiz barriz nintzan Altxueta gain orretan, gabaz ikusitakoa argiagi ikustearren batetik, eta bestetik urten egin bear neban mendi-ibiltadea zuzendutako asmoz.

Aldi artan oraindik ez-egoan oraingo bitxabalik eta, mendidi orren, Aralar orren zati zabalak mendiz-mendi zeartu bear nebazan, Gipuzkoa'ko lurraldeaz mugatuta aurkitzen dan Irumugarrieta 1.427 neurkin dituzan gaillurrera elduteko, ordu batzuk ibiltan egin ondoren.

IKUSGARRIAK

Aralar'ko mendidi onek, ainbat gaillur ditu, danak edo geienak ikuskizun bikaiñak dabezanak; eta, onetari-koa dogu Iru-mugarrieta, Intzako-torrea izenaz be ezagutzen dana, bearbada Naparra'ko Intza erritxu politaren gain-gaiñean, bere amildegi ikaragarriaren bitartez errizka ori zapaldu bear dauan antzera aurkitzen dalako. Eta, Irumugarrieta, gaillur onetan diralako Gipuzko ta Naparra'ren mugarriak eta baitabe Intza'ko lurraldeenak be.

Aralar'ko gaillurrak, Iru-mugarrieta goitiena dala, danak dira 1.300 neurkin eta geiakoak eta beraz, danak ikuskizun bikaiñak dabezanak, baiña, mendidi onek beste zer-ikusi ta zer ezaugaturik asko ditu: Pago ta beste motako zugaizdi izugarriak, Naparralde guztia, iñon diran arzuloak, leza ikaragarriak eta ainbat tregu-arri (dolmen) eta aintziñako gur-leku (cronlech) eta abar, bearbada Aralar izan zalako euzkotarron arbasoen mendidirik berezien bat, Basa-jaun da jentien sorleku bat.

LARREAK ETA ZUGAZTIAK

Lenago esan dogun lez, lenago ez egoan bitxabalik mendi orretan, baiña, aldi onetan Lekunberri'tik Mikel Deuna'raiño egoten da bitxabal ortatik, baiña, euzkotarron inguru maitagarri orretara eldu baiño len aurkitzen dan Mendi-zaiñaren etxe ondoan eskomara artu, bide pizka bat trakatzari jarraituaz artu leiteke, berebillez, tolosarrak Igaratza'n daben aterpe apaiñera eta, bera baiño pizkatxu bat lenago dagon txadontxu apaiña ikusi ondoren eta Naparra ta Gipuzkoa mugatzen dauzan mugarriari jarraituaz, belar-larre zabalak zear ordu erdi baten Intzako-torre'ra.

Naparra aldea, dana dago zugaitzez jantzita eta gipuzko aldea belar-larre zabalak artaldi, basa-bei, zaldi ta auntzez orniduta.

Benetan mendidi. bikaiña Aralar, batez be...

URTE BARRI

(Zoriona!)

Aldien joanean

Gabonzar gabeko zaratak eta oivak, pozak eta kezak, gure gizarte onetan bizi izan ondoren, eldu jaku urte barria, 1989 urtea. Ez da zenbaki biribil-biribilla, baiña emen daukagu dan lakoa.

Urtea amaitzen eta asten dan bakoitxean, ezin aitzu aldien joanean bizi garala eta aspaldiko urteak gizonentzat abiada ikaragarrian doazela.

Inguruko jazokizunak eta biziareak dauan bizitasuna ta arintasuna aldiari be ezarri egiten jago eta aldiak arin doaz. Izan be aldia neurtzeko ez dago beste neuririk igidura ta mobimentua baiño.

Aurrerapen ikaragarria

Gauza askotan eta ikuspegi askotatik, gure aldia bildurgarri eta arduragarri da, baiña ezin ukatu alde baikorrek eta itxaropentsuak be ugari daukazala.

Trebebidea, teknikea da poztasuna dakarskuna eta aurrerapenik aundienak sortzen dauzana, baiña teknika orrek ez dau galazo bearke gizarte-giro egoki ta pozgariaren ondorena. Au lortzen ez ba'da, gizona aurrerapen aundien artean goibel eta bakartadean biziko da.

Gizarte-giroko aurrerapena bultzatu bear dogu ba, bizitza gozatsua izan dakigun: Alkar ondo ulertzea, alkar ez iraintzea, alkar ez zapaltzea, besteen eritxiak onartzea edo aintzat artzea... eta zenbat gauza geiago bear dauzan gure erri aurreratuak!

Bi millagarren urterantza

Urteen zenbakian zerbait ikusten dogu, berez zenbaki ori ezelako garrantzi bakoa dala jakin-arren.

Eta bi millagarren urtea aurrean ikusteak gertakuntza batzutara bultzatzen gaitu.

Gure kondairan garrantzi aundikoak izango dira bi millagarren urtera bitartean dagozan urte oneik. Alde batetik, emen erriaren askatasuna lortzeko bideetan aurrera egingo dalako eta beste alde batetik Europa'ren ametsa bizi-bizi datorkulako.

Europa'ren itxaropena

Europa bi dagoz gaurko begien aurrean: Laterrien Europa eta Errien Europa.

Laterrienak dauka gaurkoz indar aundiagoa eta Europa orretan Euskalerrria galduta dago, laterri bitan banaduta gagozelako eta geuk laterri bat iñoz osotu ez dogulako eta osotzeko itxaropen aundirik be ez.

Orregaitik, gure amets bizia laterrien Europa barik errien Europa da eta Errien Europa orretara guk ba-daukagu zer-eroan, bear ba'da zer-artu baiño geiago.

Eta Europa egiten dago, bi millagarren urtea baiño lenago, zelan edo alan, eratuta egongo da. Joko orretan zer-galdu eta zer-irabazi aundiak daukaguz.

Zer ekarriko ete dausku urte barriak Europa'ra bide onetan?

Izan daitela urte barri zorionsua irakurleentzat eta Euskalerrri osoarentzat, baita erdi-illunetan bizi garan mundu gutziko andra eta gizonentzat be.



ORBEGOZO'TAR JOSE AGUSTIN AITA

Adiskide ta lankide

Gure artetik munduan ospetsu biurtzen diran gizonak urteten dabenean, ezin ukatu, gure barruan poztasun berezia zomatzen dogu. Gizabideko zomapena da!

Oraintsu, lankide ta adiskide dogun Orbegozo'tar Jose Agustin aita mundu guztiko Pasiotarren buru biurtu jaku. Zorionak!

Adiskide, bai, ainbat batzar eta ainbat egotaldi alkarregaz egiñak garalako eta lanerako jokabide bardiñak gure adiskidetasuna geroago ta geiago sakondu dabelako.

Eta lankide, batez be euskerearen bideak argitzeko Euskerazaintzaren inguruan egin doguzan lanetan eta ikastolen sortze-aroa izan zanean izan genduzan eztabaida ta gorabera bizietan.

Jose Agustin'ek maite dau Euskalerrria eta errazoi osoaz esan daike berak esana dan au: "Norberaren erria maite ez dauanak, ezin maitatu daikez beste erriak". Eta erri zapaldua askatzeko lana egin dauana ondo gertatuta dago beserri edo gizarte zapaldu batzui laguntzeko.

• Erki-buru eta nagusi orokor

Aurreko urteetan Euskalerrria kideko dauan Jesus'en Biotzaren Erkian buru izan ondoren, urrillean Erroma'n egindako Pasiotarren Batzar Nagusian Nagusi Orokor edo mundu guztiko Pasiotarren Buru izendatua izan da Jose Agustin, 69 autarkitatik 58 bere alde zirala.

Berau dogu mailla orretara eldu dan lenengo Euskalduna Pasiotarren artean. 52 laterritan banatuta bizi diran Kurutzeko Paulo'ren jarraitzaileak, zalantza barik, laguntza ona artuko dabe beragandik. Urrengo 6 urteetan, Jainkoa lagun, "Primus inter pares" beste sei eritxi-emoilleren artean dala bideratuko dauz mundu zabaleko arazoak.

Egunak eta urteak

Gipuzkoa'ko Goiaz'en, Bidania-ondoan jaioa dogu Nagusi Orokor barria, 1937'ko otsaillaren 1.^o egunean.



Jose Agustin Orbegozo bere lenen irakasle izan eban Kamilo aitaren ondoan.

Txikitatik, bere ikasketak asi eta lenengo urteetatik, beti izan dogu bertso-zalea eta plaza-gizona izan ez ba'da be, bertso idatziak ugari idatzi dauz.

Milla bederatzireun eta irurogeigarren urteko jorraitlean egin zan abade eta gero bere ikasketak sakontzeko Erroma'ra joan zan an batez be Biblia-ikasketa sakonak egin eta arlo onetan baimendun biurtuta etorteko.

Gero toki batzutan teologia ta batez be Biblia irakatsi dau, euskeraz be bai, bere arlo berezia Pentateuko eta Bibliaren lenengo bost liburuak dirala.

Itxaropena

Gure erriak, erri guztietara zabaldu dan Eleizeak eta munduko erri guztiak laguntza ona izango dabe Jose Agustin'en lanetan eta bizitza luzea ta onuratsua opa dautsagu gure adiskide ta lankide oneri.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

URTE-BARRI 1989

AZTERTZEN

Gabon-jaien ondoren, ainbeste jaien ostean, idazteko oroimena esan leike illunago izaten dogula, bearbada jai-giroa geugan jabeturik dagoalako, baiña, nagikeri ori astinduaz, asi gara urtero lez, azterketa ziñezkor bat egiten, asibarra dogun urterako geienbat, bada, egiñenak eginda dagoz; txarto edo obeto, baiña eginda.

Orain oldoztu bear doguna da eginbear genduzanak zergaitik egin ez genduzan edo, asi-barri dogun urte onetan egin al'balitzakez, geure aldetik daukaguna jakituri guztiz eta almen guztia orretarako eskiñiaz.

*

POZAK ETA KEZKAK

Ezin leike iñork ezpairik izan, euzkera-arloan, esate baterako, ainbateko aurrerakada egin dogula azkenengo urte oneitan. Aldi onetako beste euzkera ez da gure uri ta errietan entzun.

Baraz, zerbait ondasungarri egin dogu.

Zerbaiten aurrerakada egin eta beraz, pozgarri jaku euzkotar euzkaldunoi ainbat euzkera entzutea.

Beste aldetik baiña, tamalgarri jaku euskera mordo-lloa, erdel-itzez jositako euzkera euzko-irradi eta euzko Urrutizkiña'tik egunero ikusi bearra.

EUSKERAZ

Benetan, irakurke, euzkera maite dogunok minberatuta jarten gaitu euzko urrutizkiñak egunero darabillen euzkerak, bizkaierarik ibilli ez ondoren, erdel-kutsuzko izkera naztu orregaz.

Eta, zer esan geinke aldi onetan darabillen idazkeraz?

Lenago be esanak gera eta guk baiño askotaz geiego dakien askok be esana da: azkenengo irurogei edo irurogeita amar urte onetan ez da aldionetan baiño euzkera mordolloagorik idatzi.

Banaka batek bear ba'da, obeto ez dakielako edo, nekea nai ez daualako, baiña beste askok? Zitalkeriz euzkera garbi txukuna, euzko abendaren izkuntza bardingabea, bere abotskera gozo txukuna gorrotatzen dabelako, benetako euzko abertzaleon izkuntza bakarra dala.

* * *

GIZARTEA


Beste arlo askotan be esan leike zerbait aurreratu gerala euzkotarrok, besterik ez ba'da be, alkarri entzuten ikasi dogulako, baiña, ez dago ezpairik, askotaz geiago ikasi bear dogula batez be begirune, lotsa geiagoz begiratzen.

Erriketa arloan bear ba'da ez dogu askorik aurreratu, Euzkadi onetan, baiña egunotan, lerro oneik idazte gagozan une onetan, esan leike ebazkera, erabagi bearrezko baterako alkar ulertuko ete diran Gasteiz'ko Batzartokian ordezkariak dituean Alderdi erriketariak, Araudi bitartez Euzko Jaurlaritzak aginduten daben Euzkadi'n zati onetan, bakea, gentza lortuko ba'dabe, alderdi orren aldetik dagona beintzat.

Ikusten dogunez, ez da erraza izango, alderdi guzti orreik edo geienok beintzat, euren lapikoari txingarra ondoratutzen aleginduten dirakao, naizta iñoiz baiño bearrago dogun norberekeriak alde batera laga ta gure berria'ren bakea lortutzea.

Alkar'en arteko burruka zitaletan galduten dogun aldi bearrekoak, langabetzan alde, euzkara ta jakintza arloetan eskintzeko. Euzkadi euzkaldun eta zorintzu bat beren BURU-JABETZAZ lortuko ba'dogu.

ALTUNA'TAR JOSU



Irakurle!

Ezagutzen dozu gure egutegia?
Egunero orritxu bat eskintzen dautsu.
Bizkai'ko euskeraz, euskera garbiz.
Aurrean, iru edo lau urteagarren.
Atzean, gai jakingarri asko.
Eta duban emoten jatzu... artu egizu.
Non?
Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren idaztetxe guztietan. Eskatu zeuk!
Edo Euskerazaleak Alkartean, Colon de Larreategi 14, eskoia.
Egutegi au Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren laguntzaz argitaratzen dabe EUSKERAZALEAK.
Oparia dozu.

ETORRIKO DIRA... BAI ORIXE! ala LAGUNDU LAGUN-EGINAZ?

IZAERAK

Era askotako pertsonak dagozala ezin ukatu. Gaiñe-
ra olaxe izan bear da: bakoitza bakoitza da ta bakoitza
lakorik ez da egon, ez dago ta ez da iñoiz be egongo.

Baiña, nai-ta asko be asko sinplifikatu, pertsonak
talde bitan bereiztuko neukez.

1) Bizitzan bizi-utsa diranak: eguna joan eta eguna
etorri..., ea biar zer gertatzen dan..., ekiten barik beti
itxaroten dagozanak, eta

2) Bizitza bizi dabenak: egunak 48 ordu 8uki bear-
ko leukez eurak eskuartean darabillezan gai ei erantzun
egoki bat emoteko, egoerak eta aldiak sakonki astertzen
dabezenak... iturburuak billatuz eta ondorioak ondo neur-
tuz aal danik eta onena guztiontzat lortu nairik.

Batzuk, bada, "ikusle" utsak; besteak, "ikasle" sutsuak.

Zer esanik be ez dago mundua "aurrelariantzat"
izan bear dala.

ALDAKUNTZA

Gaur normala egiten jaku an, or eta emen entzutea:
Auxe bai izan dala munduak emon dauan aldakuntza!
Dana dago ankaz gora! la leengo gauza guztiak jausi
dira ta berealaxe sortu ta sartu jakuzan egoera barriak
gaiñezka egiten dauskue!!

Familia, irakaskuntza, kultura, ekonomia, politika,
erlijioa, ezikuntza, musika ta antzerki barriak, jazkerak,
oiturak, gaztedia... dana dago beste ikuspegi ezezagun
baten menpean!

Txarrena auxe da: gaur dirala ogei urte ta geiago,
erakunde batzuk eta gizon ospetsu batzuk ere argi ta
garbi ulertzen emon euskuela aldakuntza orre in etorre-
ra! Baiña, geienetan lez, gizon aurrelariak, argiak eta
sakonak ameslaritzat artzen dira. "Profetak" ez dira
egundo onartuak izan. Argi dago: geuretzat kaltegarri-
go! Uriolak eta ekaitzaldiak igaro bear ko dira leentxo-
go edo gerotxoago ... !

GAURKO GAZTEAK

Neure idazlantxo au arlo batera nai dot eroan: GAZ-
TEDIAREN arlora, ain zuzen be.

Gure gaztediaren zati eder bat nondik-nora jo ez
jakiñean dabillega argi dago: erreta, ilusiño barik, etor-
kizun baltz baten ikusle izanik, barruko bakerik-ezaz,
sentitzen daben euren pertsonen bakardadea edozelako
eta edonungo batzarrekin itto edo alaitu nairik, abiadaz
eta zarataz (motorrak, "gaztetxeak" ...) "emen naukazue
ni" esannaika...

Ez da arritzekoa gazte one in jokabidea "ezezkotasu-
nez" jantzita egotea. Itxaropena galtzen bada... dana
galdu da. Orregaitik, gure eginbearra, Itxaropen-sortzailleak
izatea da.

Zoritzarrez, askori entzuten jake: "Lasai, lasai... ETO-
RRIKO DIRA-TA... BAI ORIXE! EMENDIK OGEI
URTERA...".

Onelako astokeriak entzuteak miñez betetzen gaitue
gazteen artean lanean diardugunok. Eta... ez badira
etortzen? Bidean galtzen badira, zer? Edo-ta, datoze-
nean erdi-galduta badatoz?

EURAKAZ

EGIAK, ZUZENTASUNAK eta MAITASUNAK
BETI AURREA ARTZEN DAKIE. Aurrelariak dira.
Ortxe dago gure itxaropena: egizaleetan, zuzentasuna-
ren egarriz bizi diranetan eta, batez ere, egizko maita-
sunaz euren biotzak pil-pilka daukenetan.

Borondate oneko gizonen artean —eta konpondu
bear diren arazo guztien erdian— auxe izan dedilla gure
pentsakera, esakera eta jokaera:

LAGUNDU DAGIEGUN... EUREN
LAGUN-EGIÑAZ!!!

Onela jokatu ezker o, ziur nago beste giro itxaropen-
tsu baten sortzailleak eta ikusleak izango garana.

KEPA AGIRRE

ZAR-SARIA

(Galdakao 1988ko zemendiaren 20'an)

ETXEAN

Eldu barriak gara sasoí onetara.

Gai onek urtetzen ebanean gure lantegian, zenbat lanlagun bildur ziran zer izango ete zan adiñ onetan.

Gure bizitza amaitzera joiala eta gizarteak baztertu egingo ginduzale trasto zar batzuk lez sendiakandik asita.

Zer egiten dau gizon batek sukaldian egun osoan?

Emaztea be asperturik egongo da gu nora bialdu ez dakiala eta semealabak zertan esan bere ez.

* * *

KANPOAN

Eta etxetik urtetzerakoan zer egin? Beste zar-sarituakaz alkartu eta atzera aurrera ibilli beste zeregin barik? Edo ta zuri batzuk artu eguerdian eta bete-bete egin baltzakaz illuntzean, onek ekarriko dituan ondorioakaz bai norbera eta bai ta be sendiarentzat?

Oba lanean jarraitzea asken ordurarte.

Gu barriz ainbat amets egindakoak gara, gure bizia guztiz beterik ikusiaz. Lantegiak, eta batez be zerbait arduradun izan ezkeru, amar amabi ordu kentzen dautzuez egunero zuon zeregiñak bear dan lez beteko badira.

Egunaren ordu ederrenak.

* * *

IKASI-IRAKATSI

Eta zenbat dogu ikasteko era irakasteko.

Lenengo ta bein etxeko liburutegiari ikustaldi lasaitsu bat emoteko, orain arte beti ibilli bai gara ta liburuak erosi, begirakada arin bat emon eta urrengorarte astia dogunean ausnartuko dogu obeto esanaz, asmo ori iñoiz guztiz bete barik.

Erriak ezagutu, euren inguruak arakatu eta batez be gure Euskal-Erriaren aberastasunean sakondu.

Norbera aberastu urkoari zer emon izateko.

* * *

GOMUTAK

Lengo baten Upo mendiaren gallurrean bat jesarrita genozala, orain berrogeita bat urte inguru toki berean idatzitako ametsak eta bertan itxitakoakaz gogoratu giñan.

Andik zortzi bat egunera Kepa Yurrebaso gure lagun zarrak aurkitu eta beste zeregin barik etorri jakun, "oneik ziur zureak dira" esanaz.

Gazteen ametsak, Ludi osoa iruntsí bear dituenen ametsak, bear bearrezko diran ametsak gazte batentzat, bestela ez litzake gazte izango eta, baiña euren elburuetara eltzeko lur gainean ezarri bear diranak

Eta ori guk geuk ZAR-SARITUOK aolkatu geinke baka-rik, gure bizi luzearen jakituraz.

* * *

AOLKUAK

Gu geu bide orretatik ibilli gareanok esan geinkioe ez dagiazala ametsak galdu, gogor eldu dagioela, buru belarriz sartu daitezala euren ekintzetan baiña al ba'dabe gure aolkuak entzunaz. Ez da erreza izango guri entzutea baiña ori da gure lana.

Baiña aolkuak emoteko norberak ekin bear dautso lanari.

Da dago zer ikasi eta zer irakatsi len esan dodan bezela.

Bai Erri arloan eta baita be Eleizarenean.

Emen be gero eta abade gitxiago. Eta nork bete leikez obeto utsune oneik guk baiño, astia eta experientzia daukugunok baiño?

Sasoí ederra benetan eta aberatsa, ZAR-SARITUAK gure aurrean doguna.

BITTOR ATXUTEGI

LEZEA

Ezta izurik lezearen zabalean, sakonaren itzelak daragizku zirkin fede utsaren! Jainkoa! makuluekin zuzen zuzen asken saltora geranean.

Uts joankorren betetik goazenean bete iraunkorren utsera ain arin —ta ezelan be gure jausia gelezin-inguruak izarrik gabe direnean.

Illunpea da argi uts dan lekua, argi, ertz ta ondorik bako itxasoa, biziarentzat aize bako olatua.

Gora ezineko bízi benetakoa. Bizia, itxaropen opagai santua, bizia eskeintzen bizi dan itxaroa.

Euskeraz: A. BIDAGUREN

UNAMUNORENA.

EUSKALTZAINDIA EUSKERA TA EUSKERAZAINTZA

Orain dala ogei bat urte, 1968an egin ebala Euskalzaindiak "el batuari" ateak irikitzeke, Arantzazu'n, bere batzar ospetsu ura-ta, galdera batzuk zuzendu dautsoz Donosti'ko "ARGIA" aldizkariak EUSKERAZAINTZA'ri.

Erantzungo dautso EUSKERAZAINTZA'k, baiñan nik ere, euskerazaiña naizelarik, eman nai dautset aren galdeei merezi daben erantzuna.

Zur, irakurle, ez dozu EUSKERAZAINTZA zer dan esatearen bearrik. "ELBATUA"ren amargarren urtean 1978'an, Euskaltzaindiak Euskera iltzen jarraitzea ebatzi ebanean, euskera bizirik gordetzeko, Erriaren Euskal Akademia: EUSKERAZAINTZA, SORTZEA ERABAGI ZAN BERGARA'n.

Kardaberaz Bazkuneko euskal idazleek, eta EUSKERAZALEAK Bazkunenekoe, sortu eben Akademi berri au, Tolosa'ko Iparragirre antzokian, Kardaberaztarren batzar batean.

Ikus orain "ARGIA"k egin dauzkuzan galdeak:

- I a: "Batasun itzarekin zer ulertzen dezute"?

Oartu zaitez, irakurle, galdeak gipuzkeraz egiñak dirala, ez "el batuaz". Mutiko argia, "ARGIA"ko izparringilaria! Dirudianez, pentsatzen bait eban guri galde oiek "el batuaz" egiten ba'euskuzan guk ez geuntzala erantzungo!

Guk batasun itzarekin zer ulertzen dogun?

Euskaldun bakoitzak bere euskalkia ondo ezagutzea, bere euskalki ortan txukun idatzi ta itzegiteko gauza izan daiten. Besterik gabe, errez ulertuko dau, beste euskalkietan idatzitako guzia. Ez, ain errez, beste euskalkietan esaten yakona, belarria artara ipintzen daun arte.

Baiñan ori, izkuntza guztietan gertatzen da.

Lur-ikara aundi bat izan zan Karakas'en orain urte batzuk. Ba, bigaramonean iritxi nintzan ni ara. Karakas'ko parroki bat, gure mixiolarien eskuetan zegoan. Iritxi bezain laister, aitordegira sartu ninduen nere apaiz lagunek; eta eundaka etorri yatan jendea; ta an egon bear izan neban egun santu guzian.

Aitorketa egiteko urbidu yatazan kristau aiek danak, gaztelaraz mintzatzen ziran. Orra ba, nik ezin izan neban inñori tutik ere ulertu!

Zergaitik?

Ezpaiñak ikusteke, ixil-ixillean aitordegiko illunpean esana, beti ere, arras ulerkaitza gertatzen dalako, bai noski, baiñan, batez ere, nere belarriak jende aien agoetan gaztelerak daun doiñu bereizira egiñak ez zeudelako.

Iluntzerako —ari bait ziran oitzen nere belarriak—, asi nintzan esanten eustena ulertzen, eta bigaramonean, ez neban artarako batere eragozpenik.

Ori gertatzen yako adibidez bizkaitar bati ere, zuberotar bati lenengo aldiz entzuten dautsonean. Baiñan Zuberota'n eguntxo batzuk igarotzea naikoa dau, ango euskalki goxora belarria ezitzeke, eta zuberotarrei errez ulertzeke.

A! Bai! Oso jende kristaua dala Karakas'ko jendea, segu-ruaski pentsatu izango dozu. Ez eizu ba orrela pentsatu. Bai al dakizu jendetza ura dana aitorketara zergaitik urbidu zan? Karakas'ko atso azti itzal aundiko batek, ostera beste lur-ikara bat izango zala, eta lur-ikara orrek konfesatu barik arrapatzen eban guztia ilko ebala, esan ebalako!

Euskerari-buruz egia da beste gauza bat ere. Gure bizkaitar-zuberotar aien, alkar ulertzeke zailtasuna ez datorkiela euskeratik neurri aundian, erderatatik baizik; ipartarrek Frantzi'ko erderatik eta guk Españi'kotik artutako itz eta izkera atzerritarren errez zaildu egin bait dugu euskaldunon arteko alkarrizketa.

Bide ortatik doa ba EUSKERAZAINTZA. Euskaldun guztiak, auek aiekin eta aiek aiekin, errez eta atseginki bakoitzak bere euskalkia erabilliaz alkarrizketan jarduteko eran ipiñi nai dauz.

Ez da lan zaila, gaur-egungo mezu bideak yayoki erabiltzen gure erriak asmatzen ba'dau.

Arretaz, astiro, eta ezfiki ibilli bear dogu. Laisterkeri oro, ganoragabekeri guztiak, eta gogorkeri danak, kaltegarri litzakiguz.

Jabetu gaitez an iltzer daukagula gure izkuntza, eta izkuntza ori eriotzatik gaizkatu gura ba'dogu, goxotasun guztiak bear-bearrezkoak doguzala.

k * *

Ez dodaz bazterrera jaurti nai biotz-biotzez maite dodazan laburdiera eta zuberota, baiñan gaur-egun euskera, bizkaiera ta gipuzkera doguz, bi euskalki oietan egiten bait dabe berba eundik larogeita amar euskaldunek: %90'k!!!

Bizkaieratik eta gipuzkeratik asi bear dogu beraz euskera ber-bizkortzen. Asko egingo dogu, guzia egingo dogu, bizkaitarrek gipuzkera eta gipuzteke bizkaiera, beren euskalkia bezain errez ulertzeke eta mintzatzeko gauza egiten ba'doguz. Ez, ez dodaz iparraldeko euskalkiak aztu, baiñan oraingo, gure lanaren asieran, ez daiguzan bizkaitarrak eta gipuzkoarrak, lan zaillegia eskeiñiz, aspertu, ikaratu, eta gogoz-oztu!

Emon beigue ipartarrek bi urteren epea. Naikoa bai geunke, irratiairen eta ikusirratiairen bidez bizkaitar-giputzen arteko alkar-ulerterreztasuna lortzeko.

* * *

Ortarako, neurri berdinean erabili bearko litzakez irratian eta ikusirratian bizkaiera eta gipuzkera: esaldi bat bizkaieraz bestea gipuzkeraz, zine-mintza bat bizkaieraz bestea gipuzkeraz. Naikoa litzake ori, euskaldunik buru-gorrenen artean ere bi euskalkiak zabaltzeko. Bi urteren epean etxekoa izango leukee bizkaitarrek gipuzkera eta gipuzkoarrek bizkaiera.

Umeak berriz, iru-lau illabete ezkerok, bi izkuntzetan itzegiteko gai izango geunkez.

Egin eizu kontu, zine-mintza bat berean "Heidi"k bizkaieraz egiten daula, eta gipuzkeraz "Heidi"ren mutiko lagunak. Iru illabete baiño lenago, bai Bizkai'n bai Gipuzkoa'n, jolasterakoan, "Heidi"rena egiten daun neskatoa bizkaieraz mintza-

tuko yaku, eta gipuzkeraz, aren mutiko lagunarena egiten dauna.

Eta emendik bi urtera, laburdiera ta zuberuera gure bi euskalkiak bezala izango lirake, era berdinean erabiliak eta iru urte-barrun euskaldun guztiek errez ulertuak.

* * *

Ez al da ori euskeraren batasun "euskaldunerako" egiazko bide bakarra?

Batasun "euskaldunerako" diñot, "batustanoek" kaskaka sartu nai dauskuen batasun ori ez bait da euskalduna, atzerri-tarra baizik: "castellanoa", "español", gaztelera eta frantzerak beren ama lateragandik jaso eben batasun arrotza.

Luze goaz ordea-ta, beste egun baterako itziko dogu beste galdeei erantzuteko lana.

LATIEGI'TAR BIXENTE

IBARRURI, ERRI AZTUA

Ibarruri au, Uriburu'tik, Bilbo'tik 27 aneñeurkin edo kilometroan Bizkai'ko Sorkaldean aurkitzen da, Zornotza, Iurreta, Garai, Arbaizegi, Mendata, Gorozika eta Muxika erriekaz mugatuta eta, gaur-egun azkenengo aipatu dogun Muxika'ren menpean, eta orixegaitik pizka bai baiño geiago aztuta, aurkitzen dan menditarte baketsuan.

* * *

Guztira, berrogeita amar edo irurogei basetxek ormiduten dau erria, irureun da berrogeita amarren bat bizitale dauzala, Elexalde, Ondaz, Muniketa, Maume, Axuria, Zugaztegieta, Gometegi eta Ormaetxeak auzo dirala. Ori lenago, gaur-egun erdiak bere ez, basetxerik geienak utsik edo erdi utsik aurkitzen diralako, eta dagozan bizitallerik geien-geienak adinean, urteetan goratutakoak.

Basetxe orreitako bat dogu Ibarratua, 1787'garren urtean Burgaribeitia'tar Martin'ek jasotakoa, Gometegi auzunean eta, orain Ozerin-Elorriaga senar-emazteak bakarrik bizi dirana.

* * *

Erri ontako lurraldeak pizka bat aldapatsuak ba'dira be, geien-geienak mamitsuak dira eta, aldi onetan inguru guztiak lerdie edo piñuz jantzita ba'dagoz be, orain ainbat urte ikusgarriak ziran inguru orretako mendietan ikusi leitekezan artalde, basabei, zalditzak eta abar luze bat.

Ibarruri'ko erriak, iru txadon edo eleiza ditu aste guztietan meza emoten jakenak; erri'ko parrokia, Axuri'ko eleiza apaña eta Maume (Magunas), batetik bestera ainbat aneñeurkin edo kilometro dirala eta, eleiza guztietarako apaiz bat bakarrik, Artetxe'tar Txomin jaun zintzo ta euzkaltzalea. Eta oraindik geiago, iru eleiza orreik gitxi ba'dira, Gorozika'ko

erritxuan be berak, Txomin jaunak ospatzen dau asteroko meza. Ori da apaiz bizkorra izatea. Zorionak Txomin jauna.

Ez doguz atsegiñez ikusiten ibarruritarrak Muxika'ren menpean egon-bearraz, baiña, ez dogu aurkitu euren artean barriz buru-jabe izateko bear dan bizitasunik, bear ba'da gazte gitxi aurkitzen dalako erri orretan.

EDESTI PIZKA BAT

Bizkai Jaunerri (Señorio) lez egiten, osatutzen asi zanean, Ibarruri'k eta Gorozika'k be, Zornotza'ko Erri-batzarra osotzen eben, Etxano erritxuaz batera lau Eleiz-aurre zirala. Bizkai'ko Jaun-erri barri orretan lenengotariko bat izan eizan Zornotza'ko erri-batzarra.

IBARRURI, ERRI AZTUA

Erriak, euren buru-jabetasuna zelan edo alan galtzen dabenean, aztuak izaten dira, geien baten eta, batez be uriburutik edo erritxu ori menperatu dabene erri aundiagoetatik urrun, asao aurkitzen diranak. Ba'doguz Bizkaia'n be onetariko bat edo beste; Esate baterako Ibarruri gaur besterik ez aitatzeko.

Erri txikitxu orreik obe izango ebela Zornotza'ko erri-batzar orretan jarraitu ba'eben? Ez dakigu. Ba'leiteke ezetz. Bai erritxuak eta bai abenderri txikerrak be beste erri aundiago baten edo laterri indartsuago baten menpean, galduten dabelako euren nortasuna, ondo zustraitutako abertzaletasuna ez ba'dabe beintzat. Beste erri orren auzune bat edo erki bat geiago lez ezagutzen dalako aurrerantzean.

ALTUNA'TAR JOSU

AUGUSTIN ZUBIKARAI, OLERKARI

Gizona

Ondarru, arrantzale ta gizaseme jakintsu askoren uria. Ementxe munduratu zan Augustin Zubikarai be, 1914'ko azillaren 3'an. Gurasoak: Salbador Zubikarai eta ama Ana Bedialauneta; aita, egibidez, arotza. Bederatzi seme-alaba euki ebezan. Augustin iragurrena. Lenengo ikasketak Ondarru'n egin zituan.

Amaika urtetik amabostera, Saturrarán'go Abadegai lkastetxean. Beste urte bete Gasteiz'en, baiña gaixorik egoalako, etxetik ikasita. 1933 urtean Zornotza'n "Jaungoiko-Zale" eta "Ekin"-en lan egiteko asmotan; baiña barriro gaixotu eta urte bi etxean.

1936'an, guda asi ondoren, Bilbo'n leenengo "Euzkadi" egenkariko lan batzuk egiten eta gero 1937'ko urtarrillaren batean, "Eguna" euskal egunkaria asi zanetik urte bereko bagillaren erdirarte, egunkari orretako zuzendari-orde izan zan.

Bilbo galdu ondoren, "Aralar" batailoan ibilli zan gudari, Santander eta Asturias aldean. Gero, baituta, Kastro, Miranda ta Aranda de Duero'ko konzentraziño zelaietan eta Guadalajara'ko guda-tokietan, Langille taldean, 64 zenbakian. Andik Donosti ta Azpeiti'ko espetxeetan egun batzuk igaro ondoren, 1939'10 urtarrillaren 4'an, Zaragoza bederatzi izparkarien orde bester bederatzi euskal izparkari kanjeatu ziranean, Barzelona

teko baimenez egoala, Barzelona galdu zan eta Zubikarai eta lagunak lenengo Endaia'n, geroago Ziburu'n eta ondoren Landes'etako Labenne'n, baiña. Frantzitarrak gerran sartu ziranean, Lannemezan eta Tarbes'etako artsenaletan lanari ekin eutsen, alemanak emen sartu arte.

Gero, etxerako ustetan urten eta barriro Figeras'eko espetxean lenengo eta ondoren andik zigorpeko batailloe baten Gibraltar aurreko Las Inviernas'etara. 1941'an etxeratu ta arrain kontserba baten sartzeko aukera oartzuz, Mutriku'n asi zan lanean, lantegiko idazkaritzan, berton 40 urte lanean egiñik, zar-saritu arte.

1942'ko urrillean, Ea'ko alaba Maria Erkiaga Aldamiz'egaz ezkondu zan eta sei seme-alaba munduratu, Mutriku'ko lantegian lana ta Ondarruko janari-denda bateko arduradun biziaz.

Idazle

1933 inguruan asi zan idazten, lenengotan "Arteta", "Gurutz", "Itxasertz", "Kutuntxu de Artibai", "Ibai-ondo" eta abar, eta geroago "Z'tar A", "Zubegi", "Ondar-zubi" izen-ordetzat erabilliaz. "Ekin", "Euzkadi", "Euzko", "Gudari", "Argia" eta abarren idatzi eban gerra aurretik; gero, ostera, "Karmel", "Zeruko Argia", "Egan", "Redención" "Olerti" "Deia" "Diario Vasco" "Zer" "Euskerazaintza" eta abarretan 1950'tik 1965 bitartean Ondarroa'n ateraten zan "Boga-Boga" aldizkaritxoan lan-kide. 1961'tik Euskaltzaindiko urgazle. Euskerazaintza sortu zanetik, bertoko lagun. 1981'tik Ondarroa'ko Kultur-Etxeko zuzendari. Bilbo'ko Erri Irratiko eta Arrate Irratiko laguntzaille. 1983'tik 1987 bitartean, Gernika'ko Batzar Nagusietako aldun. 1982 urtean asita, urtero agertzen dan "Ondarroa" aldizkariko zuzendari.

Lan ugari dausku argitaratu. Ona batzuk: 1) "Motrico" (1969, erderaz; 2) *Erri jakintza* ("Kardala", 1976, euskeraz eta erderaz), "Boda ta Zuxe", 1977, eskeraz da erderaz, "Gure inguruak", 1982, "Bizkaiko bidetan", 1984, "Teñeru estropadak", 1987, "Ondarru, kantu, otoi, orru", 1984; 3) *Antzerti* ("Bizi garratza ta mendu zaharrak", 1970, "Aingira kumak", 1976, "Mendi ta itxaso", 1983, "Artea'ko itsua ta beste lau", 1987; 4) *Elabarri* ("Bale denporak", 1978, "Anton Guzurretxe", 1979 (Txomin Agirre saria), "Laiñoak Mundakan", 1980 (Etxeita saria), "Ira usaiña", 1981, Etxeita Tgarren saria, "Mon-daka", 1981 (Etxeita saria), "Bizitzako urratsak", 1981, "Itxastarrak", 1985, "Garratz eta gordin", 1986; 5) *Kontakizunak* ("Esan eta esango", 1979, Azke saria, "Makillen egunak", 1983, "Peru eta Mari gureak 1985, 'Lugo'-ko ipuiñak", 1986, "Barre ta irri", 1988; 6) *Ikerlanak* ("Ondarroa baserri giroan", 1985, "Berriatua", 1986, "Ipazter", 1987, "Amoroto eta Gizaburuaga", 1988, "Mendeja", 1988; 7) *Biografia* ("Balentin Berrio-Otxoa deuna", 1988; 8) *Euskeratuak* ("Bizkaiko Batzar Nagusiak", 1986, "Euskalerriko Historiaren sarrera", 1987, "Gernikako Batzar Etxea", 1987.

Orrezaz gaiñ, *Antzerki-lan* asko daukaz ondarrutar langille errime-errime onek. Ona: 1933-1936 bitartean egiñak: "Aberrijagaz bizi" ("Anta erti" aldizkarian agertua), "111lobearen indarra" ta "Itxas lapurrak" (bardin), eta "Itxas ertzeko itsu mutilla" (argitaratu barik). "Itxas-sora" (1943), Ekintza bakarrekoa, Biarritz'en saritua;

"Seaska inguruan" (1960), "Gipuzkoa" izeneko bigarren saria, "Egan"-en argitaratua; "Jaunaren bideetan" (1961), Jesus'en Nekaldiko ikuskizunak, "Egan"-en argitaratua; "Kresaletan" (1964), Gregorio Solabarrieta'ren musikagaz; "Iru alaba" (1963), Euskaltzaindiak eraturako "Toribio Alzaga saria", "Euskera"-n dator; "Mariñelak" (1965), Jose Mari Altuna'ren musikagaz; "Gizon on eta andre erre" (1967). "Toribio Alzaga" sarian, aipamena; "Bizi garratza" (1967), Donostia'ko "Gipuzkoa" sarietako aipamena, argitaratua; "Lurrunpean" (1968), "Gipuzkoa" saria, "Egan"-en argitaratua; "Errekonduan" (1969), "Gipuzkoa" sariketan saritua; "Mendu zarrak" (1969); "Toribio Alzaga" saria, argitaratua; "Mendi eta itxaso" (1983), Markiña'ko Lore-jokoetan saritua, "Antzeriti" ik argitaratua; "Eskola maixua" (1984), Santurtzi'ko Udalaren saria; "Artea'ko Itsua" (1986), Bizkaiko Aldundiaren 1986 urteko saria, argitaratua.

Baita beste oneik be: "Loiola'ko Eneko"; "Ni naz Kapitan piloto"; "Aingira kumak" ("Egan"-en argitaratua); "O Opokoa H"; "Aritz aurrean"; "Kirritirrika"; "Iruugarren adiñean" eta abar. Escudero'ren "Gernika" operako ekintza bitako letra. Antzerkirako gertuak: "Atxuri'ko milagrua", "kirikiño'ren ipuiñetatik; "Urruzuno"

Ipuin asko ditu, ta saritua izan da, Donosti, Bilbo, Bermeo aldeetan, eta "Zer" aldizkariaren sariketetan; Delmas'en "Gaztelugatxe", euskeratu dau; "Ondarroako abizenak", "Euskera"-n datozenak; Egutegiak, Ondarrru, 1966-67 ta 68; Azkue-n iztegian agertzen diran Ondarroa'n batutako itzak, eta arek batu barik laga zituanak.

Olerkari

Idazle orren oparoari ez jako gaitz izango olerkieta-
ra jo eta estrofa (giar naiz mee) batzuk ariltzea. Zubikarai aurkeztu izan da noizik bein poesi-leiaketa batzuta-
tara, eta sariak eskuratu. Sangotza'ko Lore Jokoetan, adibidez, 1967'an eta bigarren saria irabazi eban, bardin

1968'an be, eta lenengo saria beragandu eban "Naparroa'ko bideetan" eritxon olerkiaz. Zornotza'n, Karmel'ko Amaren Koroatze egunean, bere "Koroiko Pitxiak" lana saritua izan zan; Laukiniz'en, urte bitan bigarren eta irugarren sariak etxeratu zituan.

"Oleriti"-n emon dauz batez be bere poesi-lanak. Zelako olerkaria dan zuk be jakin daizun, irakur egizu 1984-garren urteko zenbakian datorren au; "Artu titia" deritxo:

Zain nago
ta eztakit etorriko dan.
Itxas-aparrak
baltz-baltz datoz aizean burrunbadetan.

Artu titia, maitexo,
laster datorke aitatxo.

Zain nago
bildurrez, etorriko dan.
Itxas andiak
ots larria dakarre gose orrutan.

Artu titia, maitetxo,
laster datorke aitatxo.

Zain nago...
negarra datorkit oparo.
Bare geiagoz
itto egin zan, oraintsu, aitona gaixo.

Artu titia, maitetxo,
geiago artu, kutuntxo.

Artu, ten bigun...
ten, ten kutun,
zu be,
zu be,
egunen baten
itxasoak iruntsi zaitzan.

Iradu dabil irudimena, biotza negar-min.
Eta olerkia orixe izan.

AITA ONAINDIA

OLABEAGA-TAR IÑAKI

Olabeaga-tar Iñaki (Txotx) Donostia'n jaio zan 1901 gko 14'an. Lasalletarra. Euzko Gogoa'n, Egan'en, Oler-ti'n, Nora'n, Bidasoa'n, Agur'en, Karmel'en agertu izan oi ziran aren olerki bikaiñak. Berea da baita "Salleko Juan Bautista'ren bizitza laburra". Irun, 1955. Olerki arloan, besteak beste, 1977garren urtean argitaldutako BIOTZ ITURRITIK dogu aren olerki-senaren erakus-bide argigarri. Gustiz 40 olerki eder. Egilleak Irakurlea-ri zuzendutako itzak dakarkidaz emen: "Nere olerki sallaren irugarren alea, eskuetan dozu: Urte beteko uzta da. Egunak asko, igali gutxi, batzuen iritiz noski. Baiñan, garbi aitortu bear. Olerki giroa ez da egunero-koa. Nerea beintzat". Ala ere, uste det, naiko jori mami-tsuak mamitsuak dirala ta biotza dutela iturburu". Eta diño:

"Arretaz irakurri
ta zure atsegiña
arki.
Bera izango da neretzat
ordain garbia."

Lasalletar Anai jator au, olerkari zinizedun ta bene-tako euskeltzale ta abertzale zintzoa dogu. Olerkari sentitzen garan lenaldikoen artean Larrea izan zan eta, da, oraindik gure babesleku ta aterpea, gure santutegia aita Onaindia buru dala Entzutezko olerkarig gitxi izango dira Larrea'tik igaro izan ez diranak. Ogeitaz urteetan Larreatik igaro izan dira Orixe, Aresti eta abar eta abar, euskel olerkari gorenak. Franco'ren uztarripeko egun bildurgarri ta garratzetan be, urterik urte, antxe batzen, alkartzen giñan euskerea alik ondoen landu ta goraltze-ko asmoz. Antxe bazkaltzen genduan prailleak egin eta serbitutako garbantzuz gozoak. Antxe Larrea'ko tellatu-pean aurkitzen giñan, alkar ezagutu ta alkar besarkatuz olerkidezko esparru, lagunartean, alkar poztu eta berotuz. Olabeaga-tar Iñaki be gure artekua zan euskera aldeko anaitasunezko batzaldi atsegingarrietan.

IXIL ETA BIZI

Ona emen gure olerkari oni buruz Gallastegi-tar Kauldi San Antongo txauburu entzutetsuak idatzitako artikuloa 1977gko AGUR amabosterakoaren atalbu-ruan: Itz oneik entzutean Bilbo'ko euskaldun guztiak

konturatzen dira zeinnetzaz diñoguzan. Anai Iñaki Ola-beaga sailletar ospetsua da gizon goragarri ori, Donos-tiarra bera, lekaide zintzoa ta euskeltzale purrukatua. Gazte-gaztetatik sailletar egin zan eta bai Gipuzkoa'n, bai erbestean eta abar irakasle argia izan da. Urte asko-txo dirala, Bilboko "Santiago Apóstol" deritzan ikaste-txean ikasketarako liburu-arazoetan lan egiten dau. Eus-kal liturjiaren alde berak egiten dauan lan goragarria, ia zazpi urte oneitan, gaur adierazi nai neuke. Apala dala-rik asarratuko yat, baiña ezin ixildu nik beraganako eskarrona agertzearren.

Erroma'k liturjia erri-izkuntzetan egitea baieztu ebe-nean, Bilbo'ko San Anton eleizan Bilbo guztian lenen ipiñi zan euskal meza bat. Ori bai, askoren asarreagaz, baiña euskaldun geienen poz eta txaloakaz. Meza orta-ra etorten zan igandero Anai Iñaki; mezako abestiak eta abar zuzentzeko egokia izango zala-ta deitu gen-duan lan ori egiteko. Ta bai berak pozik eta bereala artu zeregin ori. Meza aurretxoan abestiak irakasten ditu ta meza bitartean argi, kementsu ta ernai, oarrak, abestiak ta abar zuzentzen ditu. Baita bertsolari ona ere izanik, bertso ederrak egine ta jartzea gertatu ta eske-rrak emotea.

Bere lan-gelako baztartxo batean ainbat eta ainbat lerro olerki ederrez bateak or izango ditu ainbatean. Eurak argiratzea ona izango litzake euskal-gogoentzat. Esan geinke bera izan dala Bilbo'n euskal abesti- (liturji-abestiak) lenen eta geien irakatsi dituana. Ez San An-ton'en bakarrik, gerotxoago baita Indautxu'ko Karmel eleizan ere bera da zuzendari. An ainbat eta ainbat eleizetara deuten dautse illeta eta beste zeinbat eleizki-zun zuzendu dagizan. Ta bai ederto zuzendu ere ta abestu eleizkizun oneitara doazanak anai Iñaki'k ondo irakatsiak diralako. Izan ere, euskaldun eleiz gizon ta beste asko, eleizkizun orreik ikustean, arritzen dira ain ondo ta errikoi egiten diralako. Au da Anai Iñaki'ren lanik gorengoa.

Nigaz ez asarratu anai Iñaki, ordain gabe egin dozu zeure lan andi-eder ori ta nik eta beste askok zor yatzun eskerronezko saria emon ni dautsugu. Donos-tiarra izan arren, Bilbokoa ere lan andia zurea ta bio-tzez egiña. Badakigu Jainkozalea ta euskaltzalea zareala egin dozula lan ori, zein Gipuzkoan zein Bilbon

zuretzat guztiok Jaungoikozale ta euskaltzale garealako. Zuri jarraituz agertuko al dira or ta emen bai lekaide ta bai erri-gizon asko euskal-liturjia argi ta ongi sakondu daiten gure erri maite ontan.

Orain goazen Olabeaga'ren olerkietara. Beren egi-zaletasuna egokirro dazalgu ondorengo bertsoetan:

EGUN LATZAK

I

Euskal elizan
gure apaiz asko,
kemen-indartsu
ager zaizkigu.

Itxi atea
gezurrari,
euki zabalik
egiari.
Euskaldun maitea!
burua jaso.
Gezurra ba-doa
urrutiago.
Egia ager zaigu
dirditsuago.

II

Euskal-Erriko etsaiak
burua altxatu arro,
plazetan ta kaletan
Poliziz ta guda-tresnaz
erria beterik dago.
Atzo Etxe berriaren alde
il-meza San Antonen.
Egiz, erruz jendetza barruan
zutik, leku ez bai zen.
Zar ta gazte, mutil ta neska asko
lotsik ez ta jauna artzen.
Kanpoan beti lez, poliziak
gure biziak zaintzen!!!

Donosti'ko "antigoan"
gaur txanda.
Bertan ere zoritxarrez Negarra.
Ilketa.
Aste ontako zoria.

Gure olerkari au euskeltzalea, abertzalea, Egi-zalea,
Jaungoiko-zalea dala ezin geinke. ukatu. Aren olerkiak

irakurtzea besterik ez dago. Egutegia. Amonatxo. Oldoz-
penak. Barru illuna. Zartzaroko Kezkak. Gaxrik.

Gure Egonera ta abar zein baño zein eder sakonak
dira beren biotzondoa ta edertasuna darakusguen neur-
titz sakonak. Edertasuna aitatu dagun ezkerona emen
"EDERTASUNA NA", DERITZANA:

Edertsunean murgilduta
nai nuke nere burua ikusi.
Argitasun dizdira dunekin
estu-estu bat egiñez bizi.

Eta, zer da, edo zerk gorpuzten dau olerkariaren
edertasun-nai ori?

Jainkoa... edertasun bakarra.
Izpililluragarria... Jesus.
Berak darama argi jantzia,
mundu bakarra oro apainduta

Mota ugariko zugaitz, baso;
itxas-uiñen orro bildurgarri;
goizeko aize-abeslari goxo,
erreka-ur garden ibiltari;

Eguzki bero, argi sorburu;
Bizitza guztien erne-iturri.
Gabeko izar zurbil goxo,
gure ametsen zintzo zaindari.
Millaka izartxo kiñulari,
zeru goi-aldian apaingarri
ta gizon jakintsuen gutizi,
nere arritasun ernegarri.

Ainbeste txoritxu egalari,
margo dun ta beti abeslari;
lur-gañeko abere ugari,
itxasoko arrai aundi ta txiki.

Nere gelako txoritxu maite,
abeslari, egalari arin,
zabiltz azke batetik bestera,
izan zaite jostaillu nerekin.

Izadi zalea dogu olerkaria, Berari utziko dautzagu
gauzak edertzen, begiperatzen:

Loreak maite ditut biziki,
margo guziriko lore apañak;
biotzaren kilikari geien,
ara... gorri, zuri, orlegiak.

ELERTIA

Txukuntasuna ederra dala,
zalantzan jartzen, nor ausartu?
Garbitasuna begi-lillura
dala, inolaz ezin ukatu.

Soñuz bete-betiak nai ditut
nere bizitzaren egun danak.
Beltz-aldiak zearo baztertuz
lortu eresi-argi alaiak.

Nai nuke... nai nuke edertasuna,
oraingoa, beti-betikoa.
Bañan ori dana... Zu bakarra,
Nere Jauna... nere Jaungoikoa.

Emengo edertasun dan-dana,
zure izpia besterik ez da.
Ba... ori ain ederra izanik.
Zu nolako izango ote zera?

Biotz iturritik, biotz-biotzetik sortutako iturburu gar-
dena; neurtitz apal, argizalez txukunkiro lokarrituak.
Elduaroko, zartzaroko olerkiak, egunik egun bizi izan-
dakoak. Benetan bikain eta oldozgarriak!

Miñ-Miñak:

Biotz barrun daramaten
Euskera, oso maite nik.
Euskal idazle izan nai,
arkitu al det girorik?
Nere izkuntza nai landu,
ba ote det indarrarik?
Zartzaroko atsekabe
orain gozatu eziñik!

Iñaki'ren Biotz iturritik jasotako esakun eder batzuk
jarriko dodaz emen guztion eder, argitasunerako:

"Ase zaitetz argiz,
biotza maitasunez".

"Eguzki bero, argi sorburu;
bizitza guztien erne-iturri".

"Jaungoikoaren irriparra,
Urteroko Udaberria".

"Maitasunaren jantzia
españaren irriperra".

"Gaxo eskola
ikasleku ona".

"Zer ari gera euskaldunak
ezurrari muiña kentzen?"

"Gaurko lana egin gaur,
egun eutsi,
Biar zaillago izango
zaizu noski".

"Gizona beti ume,
jazarretan sakerre".

"Aldapa latza;
erori ta altxa".

"Jauna lan ta lan,
ni lotan bitartean".

"Okerrotan galdua degu
gaur mundua;
gorroto ta txarkerietan
amildua".

"Au zoritxarra...
Etsaiak inguruan
ta, gu...
bananduta!
Gure zoritxarra,
etsaiaren parra!

Olerkari bati dagokionez Udabarriaren eragiña ondo
nabaitu eban:

"Gaur Udaberria!
Izadiarentzat
Urte Berria.

Enbor adarretan
eriotza dozu
maltzurrez sartu.

Guregan dator
dizdiz Eguzkia,
jaio berria.

Bizitza uxatu,
lurpera beartu,
zañak legortu.

Bero datorrenez
ikus otza iges,
illuna batez.

Atoz Udaberri,
bero eta argi
ta, berpiztu ni.!"

Baiña, egunak aurrera doaz ta, egunakaz urteak, ta, olerkariak, bere gorputz ta ariman nabaitzen dau egoe-
ra larri ori. Entzun:

"Gaxo nago...
Aul nago...
Gaxo eskola
ikastola ona.

Egun auetan nago
miñetan amilduta.
Anima arkitzen det
garratzez astunduta.

Besteen gaitza
nola ulertu
ez ba-naiz beñ ta
iñoiz gaxotu!

Zer egin? Nora jo?
gogoa asaldatu?
Burua makur ta,
Fede argiz artu.

Miñaren jakiteak
zabaltzen du biotza
Errezago ulertzen
bestek daukaten gaitza.

Fededun gizona ta, eroapen aundiz artu eban bere
zartzaroko gexoaldi neketsua. Ta, zer geiago? Begiratu
daiogun abertzale bezala gure gizarteko anaitasunik-eza
ikustean:

"Au zoritxarra...
Etsaiak inguruan
ta gu...
bananduta!
Gure zoritxarra.

Oargarriak dira bai Olabeaga'ren neurtitzak; astiro-
-astiro irakurtzekoak, ondo auznartuz. Txalo aintzagarri
ta bero bat Gure olerkari ta idazle, abertzale eredugarri
izan zanari. Gaurkoz agur. Besterik ez irakurle.

MUNIATEGI-TAR SABIN
(1988)

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZ.KAINO)
- ERRI JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14 - 2.^o - BILBAO-1

ITZ GOZOAK

EURIA EGIN EBAN ATZO

Euria egin eban atzo, euri ederra,
legorte luze bat igaroz gero, euria;
eta, gaur be, egunaz dator sirimiria,
indar barritzeko izadi zimel, igerra.

IÑAKI MARTIARTU

OSAGARRIA

Urriak jua urtia etorri, dana da aldatu.
Gaztetasuna iges eginda, au da zartzaro.
Dana motela, dana da illuna,
alaitasuna, txorien antzez
aizian egaz, urrindu yaku.

Josue, antziñan gurendan eske,
ordu batzutan euzki, bidian geratu erazo.
Beste orren beste, Jauna'ri eskarrak,
une laburran egiteko, ba daukot era.

Illoba irudi, euren laukian,
orman eskeita, or dagoz biak.
Aren aurrian jesarri eta
biok batera beitzen nabe,
irri-barreka maitetasunez.
Biotz barrutik alaitasuna
beinguan igon arpegiraño;
barre samurra espanetara,
neure erantzuna ta... iituna uxatu!

UTARSUS

ROTHENBURG-eko NIRE GOGAMENAK

Ze erreza oi da begiratzea,
ze gatxa ezer ikustea.

Ze erreza oi da entzutea,
ze gatxa ezer aditzea.

Orren gatxa bada bilatzea,
are gatxago aurkitzea.

Ze erreza oi da maitemintzea,
ze gatxa maitatzea.

Ze erreza oi da egotea,
ze gatxa sentitzea.

Orren gatxa bada alkar ulertzea,
are gatxago apala izatea.

Ze erreza oi da berba egitea,
ze gatxa sinistea.

Ze erreza oi da guzurretan eragotea,
ze gatxa egia esatea.

Orren gatxa bada uts egitea,
are gatxago zintzo irautea.

Ze erreza oi da salatzea,
ze gatxa norberaren errua onartzea.

Ze erreza oi da aaztea,
ze gatxa parkatzea.

Onen gatxa izan bada eregitea,
are gatxago ete izango luzaro irautea...!

IÑAKI MARTIARTU
ROTHENBURG OB DER TAUBER
1988-8-22

ATEOAREN OTOITZA

Entzun nire deia etzaran Goiko Urtzi
ta bil beiz Zure ezak nire intziriak,
poz barik Zure trikimailuen ziriak
inoiz be ez dau ba gizon pobrerik utzi.

Gure otoitzen morroi, pozez gozuz jantzi.
Nigandik ta urrunago Zure begiak
urrago ditut amaren ipuin eztiak
ene ainbat gau betilunen poz-igurtzi.

Bai aundi Zu ene Jainko. Ain aundi zera
Idea utsa bait zera. Dana txikia
zabala gura arren Zu barruan artzeko.

Zure erruz Jauna nabilkiuz minbera,
etzaran Jainko. Egiz ba zeunko bizia
ni neu be benebenetan nintzakelako.

Euskeraz: A. BIDAGUREN

UNAMUNORENAK

GABONAK-URTE BARRI

Gabonakaz dator edurra
ta, lodi, maramara jausiz
zuri-zuri dago bai lurra,
izara garbizko estalkiz.

Mutillak alai, jostatzer
etxe aurrera urbil dira
edur-argitasun bizira,
giza-panpin bat egitera.

Jarri dautse pipa bat ere
ta, kartoi gorrizko sudurra,
arrano antzeko makurra
ta, begitzat bi gaztain ale.

Gero, danak ingurumari,
bira-biran, dantza-dantzari,
poz-pozik ta baibelenkari,
abesturik Jesus aurtxoari.

Abestu zuk be, lagun zarra,
abestu daigun biotz onez,
abestu Gabon Gaba danez
biztuz Maitetasun Sugarra.

Pin, pan, pun... gaztañak erretzen,
or dakusgu andra Kattalin,
opari on bat egokitzen,
gogoz, arduratsu, guztiz pin.

Mutillak barruratu dira
ta jarri dira epeletan,
nabaiturik txingar dirdira
usain gozozko pilpiratan.

Azorio ta, nai aña gaztaña
ta, morokillez gozatua;
gero, ipuiña ta ipuiña
Peru ta Mariz gatzitua.

Gaba dago illun-illuna
ta, bakarrik, etxe aurrean
gelditu da panpin kutuna
gabeko ixiltasunean.

Abestu zuk be, lagun zarra,
nik abes dagidan antzera
ba, bijar jaioko da aurra
gure eredu izatera.

Gabon abesti pozgarriak
oroimenera datozenak;
irudi laztan goigarriak
bizitzako aberatsenak.

MUNiategi-TAR SABIN
(1988)

A

Urteen joanean ta orbelak lez, aizean,
joan doaz autsezko bidetik birinbolan,
udazken urrezatuaren zimeldurapean
eriotzazko negu aurreko aizo-kirolan.

Joan doaz, orriak beerakada betean,
joan doaz autsezko bidetik narrazean,
azkenengo egada ildurati, baltzean,
itzuli bako lurreratze etengabea.

Urteak igaro dira ta gugaz batera
biziratu ziran gauzak gaztetasunean,
eztaikit nun ta, noiz jausi ziran bertanbera,
ta, gaur, ai, oroitzapen bat besterik ez dira!

Lurra bein ta barriz ernaldu da-ta, gogoa
doguz, ogei urtetako goraldi zoroan
begiztatutako lorak, lillura osoan
udaberritar lerdentasun, usain gozoan.

Amesturiko osertz eder, laztangarriak
ta, urrezko ariz, egunik egun josiak,
Orra orr! maitasunezko argimen biziak,
gaztetasun aldiko zillar, urreterria!

Ikusi, oroitzuz, lenaldiko joandura
urrunak, autserrepeko txinparta antzera,
oraindik beren eresi, gogai-usaindura
apurrez datozenak gure oroimenera.

Urteak joan dira, bete-bearrezko legea,
bits aparrezko itxasoko olatupean

arkaitzen aurkako burrutatze gogorrean
gain beeraka doa gure bizi izatea.

Oi gazte baratzetako aizeño leguna!
Oi atzo irripar zegin muñope sorgiña!
Oi amaren ama, amuma maite, kutuna!
Oi etorgai loratsuzko goi-sapai urdiña!

Udabarri, Uda, Udazken eta Neguakaz
goazen bizi gozamen eta, arantzapean
egun argi, alai ta, egun latz trumoitsuekaz
Ori, BERE ESKU DAUKANAK deitu artean!

Bebiltz orriak aizean euren joan-etorrian,
urteko berein aizeren boladapean,
aize gogor, aize bigunen eraginpean
bebiltz beren emoitzapen ta lorrinkerian.

Bizitzaren joan-etorri artu-emon, arian...
dagigun bidea, goiz-arratsen biotz billa,
gogoa gau-egunetan barrenduz ixil-ixilla,
oldozkunaren iturburu bizigarrian.

Igarozko ameskizunak, orriak aizean,
lurrera datozenak urteen aztunean
zugatzak-eta billuts gelditzen diranean
ain egoera larri, barru-min ilduratan!

MUNiategi-TAR SABIN

(1988) Poligono Olibet, 4-7.ª E.
Errenderia. Gipuzkoa.

LOIOLA'KO INIGO'REN LORATXOAK INIGO ETA MOROA

Iñigo Loiola'n osatu eta biotz barritu ondoren, Arantzazu'ra joan zan Ama Birjiñari bizitza barrirako laguntza eskatzera. Baiña an be ezagun geiegi zituala-ta, Montserrat'eko Andra Mariarengana, Katalunya'ra, joatea erabagi eban.

Bidean joiala zer jazo jakon berak edestuko deusku.

"Montserrat'eko bidean niñoiala, Zaragoza aldean edo, moro bat mando gaiñean urreratu jatan. Eta biok izketan bidez-bide giñoazan... Eta ekiñaren ekiñez Ama Birjiña dala-ta beraa egitera etorri giñan.

Moroak esaten eustan, baietz, berak Ama Birjiñak semea gizonen bear barik sortzea, ontzat artzen ebala, baiña... semea izan eta birjiña gelditzea, ori ezin ebala berak sinistu.

Nik, ostera, baietz eta baietz, buruan nituan arrazoi guztiak emon neutsazan, baiña moroa berean gelditu zan.

Gauzak olan zirala, moroak lasterka egin eta aurrea artu eustan, eta begietatik galdu neban.

Orduan neure barrua kezkatan asi jatan, pentsatuz, ea zelan itzi neutsan moroari Ama Birjiñaren aurka olango gauzak esaten... Baita neure Amaren izen ona garbitu bearrean aurkitzen nintzala.

Eta gogoak emoten eustan moroaren atzetik joan eta lurrean josteko... Baiña au be geiegitxo izango zala-ta, zalantza onetan ez nekian nora jo...

Eta ez-bai onetan luzaro egon ondoren, ez neban urtenbide garbirik aurkitzen... Eta azkenean pentsatu neban, mandoari agokoa eta ugelak nasai emonik, berak gura eban bidea artzeko aukera emotea izango zala onena... Eta mandoak moroa joan zan erriko bidea artzen ba'eban, moroa garbitu egingo nebala... Baiña bide-gurutzean beste bidetik jotzen ba'eban bakean itziko neutsala...

Eta moroa joan zan erriko bidea zabala eta ona izan arren, Jaungoikoak egin eban, nire mandoak beste bide estua artzea, bestela...".

IÑAKI GOIKOETXEA. S.J.

URTEAK

Lau aro ditu urteak,
Eguniro gazi-gezak:
Atsegiñak ta nekezak,
Lokatzak eta urreak.

Neguan ekaitza, gogor,
Ta, udaran lurra idor;
Udabarria iorankor
Ta, udazkena berankor.

Eta, gu, emen lurrean
(uste ta, amets artean)

Maitetasun itzalpean
Edo, illun, asarrean.

Utsa utsaren ganean,
Lotzen ez bada bizia
Anaitasun aripean,
Sortatuz garan guztia.

Argia eta Itzala
Bizitzaren ardatzean.
Goraberadun egala
Bakoitzaren izatean.

MUNIAITEGI-TAR SABIN

JUANTXO-TXIKIRENGAN ITXARON (19)

Erein. Erein azi ona. Erein azi ona etenik gabe. Aukeratu azirik onenak. Merezi ditu Juantxo-txikik. Baserritarra, azia erein ondoren, ez da bigaramonean joaten sorora azia erne ete dan ikustera.

Bein erein ezkeru, lasai gelditzen da, presarik gabe. Berak ba-daki bere garaian erne eta burutuko dala azia, gauzak okertzen ez ba'dira. 'Aundia banaiz, txikia banaiz, maiatzean burutuko naiz' diño esaera zaarrak gariari buruz.

Badaki ereinda bakarrik ez dirala lanak eta arazoak amaitzen; jorrak ondoren etorriko dira bere orduan.

Aziaren ardura izango dau baserritarrak, noiz erneko, baiña patxada onean, trankil, itxaron-bidetik eta eroapen aundiarekin. Gauza guztiak bear dabe euren denporea.

Itxaropena eta eroapena denporarekin batera: orra zer gauza ederrak. Eroapen aundiz itxaroten jakin. Denporea emon eta artu. Juantxo-txiki oso nekez azten dan azia dozu. Itxaron. Denborea emioizu. Bere biotzean erein dozuzan azi oneik, emon euren garaian emongo dabe frutua...

—Noiz, baiña...?

—Jainkoak daki: asieran, erdian, azkenean...

Ain berandu...?

—Garaiz litzake oraindiño. Tarsoko Saulo, Kartagoko Agustin, Loiolako Iñigo ez ziran irurak umearoan edo gartzaroan zuzendu, gizon adiñek oak zirala baiño eta donetasunera eldu ziran irurak: Paulo donea, Agustin donea eta Inazio donea, irukote bikaiña giza-kondairan.

Lana egitea da zure eginbearra, Juantxo-txikiren biotzean azi onenak ereiñez eta jorratuz, euria eta eguzkia emonez... Orreik zure eskuetan badagoz be, orrein frutua orixe bai ez dagoela zure aalmenean. Orren konturik ez dautzu iñortxok be eskatuko.

Al dauna bakarrik eskatu Juantxo-txikiri. Al dauana bakarrik egin-erazo eta bere aalmenaren neurrian irakatsi. Batekoa al da bere indarraren neurria? Bateko lana eman. Izango dau biar biko indarra eta orduan emongo dautsazu biko lana. Biarko lanak biarko indarrentzat izan bear dabe; baiña, biarko indarrari dagokion lanik ez emon gaur.

Itxaron, lana eskutik itzi gabe.

Eroapen eta pazientzi aundian, lana ez da sekula alperrikakoa izango, Jauna lagun.

Bizkaia beti

Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CA-A IJE AHORROS
VIZCAINA